

FAMILIAREN LAGUNTZA ETXEKO LANETAN

Etxeko lanak aspalditik ematen dira gure hezkuntza sisteman. Irakasleek aspalditik ematen dituzten arren, gaurkotasuna duen gaia ere bada, gaur egun familia ugari baitago gai horretaz kezkatuta.

Motibazioa oinarrizko zutabe bat da, ezagutzak berenganatzeko eta edozein zereginetan saiatuak eta irmoak izateko. Zentzu horretan, helduek umeak motibatu behar dituzte uneoro egiten duten ahalegina baloratuz eta sendotuz. Horrez gain, etxeko lanetan laguntzeko oso garrantzitsuak diren beste faktore batzuk ere badira, esaterako: lanerako espazioa, ikasteko teknikak ezagutzea, materiala, lanen antolaketa, ordutegiak, atsedanak eta laguntzak...

Era berean, garrantzitsua da etxean ikasteko giroa izatea, ez egun jakin batzuetan bakarrik, baizik eta modu sistematikoan eta etengabe, umeak etxeko lanak egiten konstanteak izan daitezen. Ikasteko tokian ez da zarata handia egon behar, ezta telebistarik ere, aulki eta mahai funtzional bat behar dira eta argi egokia.

Bestalde, adin txikikoa txikia denean, helduak lagundu behar dio etxeko lanetarako denbora kudeatzen, baina heltzen doan heinean adin txikikoak berak erabaki behar du lan horiek egiteko zenbat denbora behar duen eta helduak erabaki hori errespetatu egin behar du. Helduak ez du parte hartu behar ikasteko denbora horretan eta kontuan izan behar ditu eta errespetatu, adin txikikoaren atsedenerako eta aisialdirako beharrak.

Azkenik, heldua aurreratu egin behar dira eta aisiarako jarduerak planteatu, kultur jarduerak sustatu, irakurzaletasuna bultzatu... behar dute; halaber, ume eta gazteen trebezia akademikoen garapenari buruzko interesa azaldu behar dute eta tutorearekin eta irakasleekin lankidetzan estuan aritu behar dira, informazioa trukatzeko eta helburuak finkatzeko.

Laburbilduz, umeak baloratuta sentitu behar dira, autoestimu altua eta konfiantza izan behar dute, garapen akademikoan eta pertsonalean lagunduz eta babestuz. Horrela, etorkizunean heldu independenteak eta autonomoak izango dira.

LABURPENA

Etxeko lanak irakasleek ikasleei ematen dizkieten lanak dira, eskolako ordutegik kanpo egin behar izaten dituzte, epe jakin batean eta aurrez zehaztutako xede akademikoak eta hezgarriak izaten dituzte. Lan horien bidez, ikasleak eskolan ikasitakoa praktikatzen du eta sormena, hausnarketa eta

kritika ere garatzen ditu. Are gehiago, ikasleak, epe luzera, eskolako errendimendua hobetzen du, "ikasten" ikasten du eta ikasteko eta lana egiteko norberak dituen teknikak aurkitzen eta praktikan jartzen ditu, helduaroan arduratsuagoa izan dadin. Laburbilduz, etxeko lanak bereganatutako trebezia akademikoak praktikatzeko eta indartzeko lagungarriak dira, eta ikasteko ohitura onak eta diziiplina indartzen eta trebatzen dituzte. Era berean, sormena, ekimena, azkartasuna eta norbere burua trebatzeko dira eta erantzukizuna, autonomia eta autoestimua garatzeko bitartekoak dira.

ETXADI

Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia